

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila****Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 742/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 9koa, «Bizkaia Kiroiak 2020» sarietarako deialdia egiten duena.**

Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b.6 artikuluen arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek kirolaren sustapenaren arloan emandako legeak garatu eta betearazteko eskumena.

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak, ekainaren 11koak, 2.3 artikuluan adierazten duenez, aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian kirola kultur osagaitzat eta gizarte bateratzaitzat aitortzea.

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

Ildo horretan, Autonomia Estatutuak eta Euskal Herriko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak ezarritako eskumenen eremuan, eta, euren zuzeneko jardunaren bidez edo ekimenaren bidez, edo kirol politikaren garapeneko partaide legez, gure lurralde historikoan gorputz eta kirol alorreko jarduera bultzatzen eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta entitateen aipamen berezia egitea egokia dela uste izanik, Bizkaiko Foru Aldundiak «Bizkaia Kiroiak» Sariak sortu zituen 2006an eta, aurreko edizioetan emaitza oso positiboa izan denez, egokitzen jo du «Bizkaia Kiroiak 2020» Sariak deitzea ekitaldi honetarako; helburu nagusia, berriro ere, bizitzaren alde handi bat nola edo hala kirolari eman izan diotenei ohorezko saria ematea izango da.

Beraz, kontuan harturik zer eskumen ematen dizkidaten hala Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak nola Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. — Bizkaia Kiroiak 2020 sarietarako deialdi publikoa onartzea

Foru agindu honen bidez Bizkaia Kiroiak sarien 2020. urteko ediziorako deialdi publikoa onesten da, gure lurralde historikoan jarduera fisikoa eta kirola bultzatzen eta sustatzen eginiko lanetan nabarmendu diren pertsonen eta entitateen aipamen berezia egiteko. Horretarako, oinarri hauek hartuko dira kontuan:

«BIZKAIA KIROLAK 2020 SARIAK» EMATEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa

Bizkaia Kiroiak 2020 sarietarako deialdiaren helburua da Bizkaiko pertsona fisiko eta juridikoek Oinarrizko kirolaren arloan egin duten lana publikoki aitortzea; hirugarren oinarriaz zehazten dira sarien kategoriak.

Bigarrena

Sariak ohorezkoak izango dira; hau da, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango. Haien bidez, egindako lana publikoki aitortzen da; horretarako egingo den ekitaldian ikurra emango zaie sarituei.

**Hirugarrena**

Bizkaia Kirolak Sariak, 2020ko edizioan, honakoak aitortzeko dira:

- a) 1997 eta 2004 urteen artean jaiotako Bizkaiko kirolariak.
- b) Bizkaiko entitateak, kirolean eginiko lanagatik.
- c) Bizkaiko arbitro, entrenatzaile eta zuzendaritzako langileak eta/edo laguntzai-leak, kirolean eginiko merezimenduengatik.

Sariak kategoria hauetan emango dira:

- Taldea.
- Kirolaria.
- Arbitroa
- Entrenatzailea
- Kirol entitatea
- Zuzendaritzako langileak eta/edo laguntzaileak

Talde zein kirolari kategorietan 2019an lortutako merituak dira baloratuko direnak.

Gainontzeko kategorietan ibilbidea da baloratuko dena.

Bestalde, sari horiez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak aipamen bereziak eman ahal izango ditu Bizkaiko kirolean eginiko lana aitortzeko.

Laugarrena

1. Hau izango da saridunak hautatzeko era:

- a) Edozein pertsonak edo entitatek aurkeztu ahal izango ditu hautagaiak (bat edo batzuk).

Hautagaitzak Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko dira (Recalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan.

Horrez gainera, aukera egongo da hautagaitzak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkezteko, <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen egongo dira eskuragarri, (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), bertan bete eta izapidetzeko.

Horretarako epea foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 2020ko martxoaren 31ra arte izango da, egun biak barne.

Proposamenen, hautagaiak saria jasotzeko egindako merezimenduak azaldu behar dira.

Ez dira kontuan hartuko merezimenduak adierazten ez dituzten proposamenak.

- b) Aurreko deialdian arbitro, entrenatzaile eta zuzendaritzako langile eta/edo laguntzaile zein kirol entitate kategorian aurkeztu eta saririk jaso ez zuten hautagaitzak honako edizio honetan aintzat hartuak eta baloratuak izango dira.

- c) Epaimahaiak, hasieran, lau hautagai aukeratuko ditu kategoria bakoitzeko.

Ondoren, hasieran aukeratutako hautagaien artean, erabakiko du zein diren Bizkaia Kirolak sarien irabazleak, kirol arloan eginiko lanean nabarmentzekoak diren alderdiak kontuan hartuta.

Azkenik, egokitzat jotzen dituen aipamen bereziak eman ahal izango ditu.

- d) Hasieran aukeratutako lau hautagaiei gonbidapena emango zaie Bizkaia Kirolak 2020 sariak banatzeko ekitaldira joateko; ekitaldi horretan publiko egingo da zein diren Bizkaia Kirolak 2020 sarien irabazleak kategoria bakoitzean.

2. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Foru Aruaren 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, Bizkaia Kirolak 2020 sarietako epaimahaia honakoek osatuko dute:



- Epaimahaiburua:
 - Lorea Bilbao Ibarra anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua.
 - Epaimahaikideak:
 - Miren Arantza Mardaras Izarza anderea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua.
 - Asier Intxausti Urionabarrenetxea jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Federatuko atalburua.
 - Diana Nogales Morales anderea, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak izendatua.
 - Batirtze Ispizua Larrauri anderea, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak izendatua.
 - Kepa Rodriguez Mate jauna, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak izendatua.
 - Francisco Jose Prieto García jauna, Bizkaiko Kirol Pentsaren Elkarteak izendatua.
 - Usue Zatika Elorza anderea, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kiro-laren Zuzendaritzak izendatua.
 - Idazkaria:
 - Igor Estankona Bilbao jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko foru funtzionarioa, ahotsa izango duena baina botorik ez.
3. Epaimahaiak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak.
Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak erabakiko du.
 4. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta haren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.
 5. Gerta daiteke saririk ez ematea deialdian edo haren kategoriaren batean, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

Bosgarrena

Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez argitaratuko da 2020 Bizkaia Kiroiak sari-dunen zerrenda eta, hala denean, aipamen bereziena ere.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko martxoaren 9an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA